



Oletako jai batzordeko kideak, beste hainbat auzotarrekin batera, iazko jaietan. **O OLETAKO JAIK**

## 80 urteotako esentzia mantenduta eta gaztetuta datoz Oletako sanjoanak

Altzako auzune txiki bat da Oleta, baina «auzo izaera handikoa», Oletako sanjoanetako jai batzordeko kide Nora Lopezek esanetan. Horregatik, Oletakoak desiratzen daude txupinazoa bota, eta jai giroan murgiltzeko.

✦ Beñat Parra Rodriguez

**Z**ortzi hamarkada, 80 urte. Horixe da Oletako San Joan jaiak aurten ospatuko duten urteurrena, jai batzordeko kide Nora Lopezek nabarmendu duenez. 80 urtez jai batzuk antolatzeak esan nahi du auzotar askok urteak eta urteak pasatu dituztela jaiak buru-belarri antolatzen eta, hain zuzen ere, belaunaldi erreleboa bermatuta dute Oletan: «Hau izan da lehenengo urtea auzoko gazteok jaiak antolatzeko ardura serio hartu duguna, eta

balio izan digu konturatzeko gure gurasoek eta aitona-amonek egindako lana ikaragarria izan dela», dio Lopezek.

«Lan ikaragarria» izanik ere, Oletako gazteak «ilusioz» daudela nabarmendu du jai batzordeko kideak, Oleta «familia baten modukoa» delako: «Berez, Oleta ez da auzo bat ere, kale bat da, baina gutxi bagara ere, pertenezia sentimendu handia dugu denok, erabateko auzo izaera dago hemen. Familia baten modukoa da Oleta».

«Belaunaldiz belaunaldi pasatu dira jai hauek», gaineratu du.

### «Esentzia» mantendu dute

Jai batzordea zeharo gaztetu da, baina Oletako jaien «esentzia» mantendu dute Lopezek azaldu duenez: «San Joan sua, sardina jana, pala txapelketa... hori dira Oletako jaiak, nahiz eta parranda pixka bat ere egiten dugun, noski!».

**«Berez, Oleta ez da auzo bat ere, kale bat da, baina gutxi bagara ere, pertenezia sentimendu handia dugu denok»**

Horrela, gaur arratsaldean bertan lehertuko da festa Oletan, txupinazoarekin eta jarraian auzoan barrena egingo duten martxarekin, «auzo guztia jai giroan murgiltzeko». Haurrentzako jolasak ere izango dituzte eta denek elkarrekin afalduko dute, noski, eta Javi DJ-ak girotuko du gaua: «Nagusiki, auzokoentzat izango da, ostiralean ez baita kanpoko jende asko etortzen, gehiago etortzen dira larunbatean».

Larunbatean, bestalde, denetik edukiko dute: paella jate arrakastatsua, mus lehiaketa, arratsaldeko poteoa edo *tardeoa* berritasun nagusi gisa —«gurasoentzat bereziki», Lopezek hitzetan—, sardina jana eta festa tematikoa, bestek beste. Hain zuzen ere, txikiak zirenean heldutan izan nahi zuten horretaz mozortuko dira auzotarrak, «umoretik», jai batzordekoak nabarmendu duenez.

Gaua ederki luzatuko du batek baino gehiagok, ziur, baina indarrak gorde beharko dituzte igandeko Olinpiar Joko arrakastatsuentzako eta, bereziki, astearteko San Joan surako, horrekin borobilduko baitituzte jaiak.

Horretaz guztiaz gozatu nahi izanez gero, Oletara joatea baino ez dago, eta Lopezek argi dauka: «Etorritzen den orok errepikatzen du, herri txiki baten modukoa delako hau». ●

## OSTIRALA 19

**18:00**

Jaien hasiera, txupinazoarekin.

Auzotik martxa.

**19:00**

Txokolate jate herrikoa.

**19:30**

Txikientzako jolasak.

**21:00**

Afari herrikoa, auzoko plazan.

**23:00**

Javi DJ-a.



## LARUNBATA 20

**12:00**

Txikientzako jolasak.

**13:00**

Prokultura: haurrentzako makillaje tailerra.

**14:00**

Bazkari herrikoa: paella.

**15:30**

Mus lehiaketa.

**18:00**

Arratsaldeko poteoa Javi DJ-aren esku.

**19:00**

Sardina jate herrikoa eta buruhandiak.

**22:00**

Festa tematikoa: *Txikitan, zer izan nahi zenuen handitan?*

**23:00**

Natatxe orkestra.

**00:00**

Zezensuzkoa.

**01:00**

Dantza eta mozorro lehiaketa.



## IGANDEA 21

**06:00**

Diana eta gosari herrikoa.

**11:00**

Meza.

**12:30**

Toka eta bote txapelketa.

**14:00**

Erretiratuentzako luntxa eta parrillada dastaketa.

**16:00**

Tute txapelketa.

**17:00**

Helduentzako jolasak.

**19:00**

Bingo musikala.

**20:00**

Parrillada.

## ASTELEHENA 22

**17:00**

Antzerkia, Tomasene Kultur Etxearen eskutik.

Txokolate jate herrikoa.

**18:00**

Pala finalerdia frontoian.

## ASTEARTEA 23

**18:00**

Barrene herrikoa pala txapelketako parte hartzaileentzat.

**19:00**

Pala finala.

**21:00**

Afari herrikoa.

**00:00**

San Joan sua, zezensuzkoa eta jaien bukaera.